

PLE 7-MAR-24 (4/CP)

2024KO AURREKONTU LUZATUAREN ALDAKETA. HJTPKO IRUÑA SF365 PROIEKTUARI LOTUTAKO GEHIKUNTZAK ETA EZOHIKO KREDITUAK.

PLE 7-MAR-24 (4/CP)

«IKUSIRIK espedienteen jasotako agiriak, Iruñeko Udalaren 2024ko aurrekontu luzatuari buruzkoak, Alkatetzak 2023-12-29ko ebazpenaren bidez onetsiak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren arloan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuak ezarritakoarekin eta indarreko Aurrekontua betetzeko oinarriekin bat, eta alorrak proposatutako inbertsioak premiazkotzat eta atzerazintzat hartuta, ERABAKITZEN DA honako aldaketa hauek onestea, zeinek kreditu-gehigarri edo aparteko kreditu izaera izanzen baitute, Iruñeko Udalaren indarreko aurrekontuan aurrekontu-aplikazioa esleituta duten ala ez kontuan hartuta:

1.- Aldaketa egitea 51/43200/227060 partidaren (Turismoa. Kontratuak, ikerketak eta lan teknikoak), 1.473.555,32 euroko zenbatekoarekin, HJTPko Iruña SF365 proiektuko kontratazioetarako (2022/27 NG-PRTR gastu-proiektua. Jasangarritasun Turistikoko Plana), diru-sarreraren 20/87010 partida (finantziario ukituko gastuetarako Diruzaintzako Gerakina) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

2.- Aldaketa egitea 51/43200/226990 partidaren (Turismoa. Beste zenbait gastu), 280.002,60 euroko zenbatekoarekin, HJTPko Iruña SF365 proiektuko beste zenbait gastutara bideratzeko (2022/27 NG-PRTR gastu-proiektua. Jasangarritasun Turistikoko Plana), diru-sarreraren 20/87010 partida (finantziario ukituko gastuetarako Diruzaintzako Gerakina) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

3.- Aldaketa egitea 51/43200/629090 partidaren (Turismoa. Beste ibilgetu materiala), 428.812,61 euroko zenbatekoarekin, HJTPko Iruña SF365 proiektuko inbertsioetara bideratzeko (2022/27 NG-PRTR gastu-proiektua. Jasangarritasun Turistikoko Plana), honela finantzatuta:

- 420.236,36 euro, diru-sarreraren 20/87010 partidako (Finantziario ukituko gastuetarako Diruzaintzako Gerakina) gehikuntzaren bidez.
- 8.576,25 euro, diru-sarreraren 20/87010 partidako (Ukitutako baliabideetatik heldu den finantziario ukituko gastuetarako Diruzaintzako Gerakina) gehikuntzaren bidez.

4.- Aldaketa egitea 51/43200/632090 partidaren (Turismoa. Inbertsioak eta konponketak beste eraikin eta eraikuntza batzuetan), 1.802.680,67 euroko zenbatekoarekin, HJTPko Iruña SF365 proiektuko inbertsioetara bideratzeko (2022/27 NG-PRTR gastu-proiektua. Jasangarritasun Turistikoko Plana), honela finantzatuta:

- 1.766.627,06 euro, diru-sarreraren 20/87010 partidako (Finantziario ukituko gastuetarako Diruzaintzako Gerakina) gehikuntzaren bidez.
- 36.053,61 euro, diru-sarreraren 20/87010 partidako (Ukitutako baliabideetatik heldu den finantziario ukituko gastuetarako Diruzaintzako Gerakina) gehikuntzaren bidez.

5.- Aldaketa hauei aplikatzen ahalko zaie indarreko aurrekontua betetzeko oinarrietako 10.aren 8. apartatua, aurrekontu-aplikazio berriak sortuz gero gastuaren behin betiko egozpenean.

6.- Indarrean dagoen aurrekontuaren 4. oinarrian ezarritakoarekin bat, erabaki honetako 1., 2., 3. eta 4. puntuetan onetsitako aldaketak jendaurrean paratzea hamabost egun naturaleko epean, erabakia Iruñeko Udalaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik aitzina. Hasiera batean onetsitako aldaketa horietakoren baten kontra jendaurreko epean erreklamazioak aurkezteak berekin ekarriko du Osoko Bilkurak berariaz egin behar izatea behin betiko onespena, indarra har dezaten, baina behin betiko berariazko onespen hori ez da beharrezkoa izanen erreklamaziorik jaso ez duten aldaketek indarra har dezaten.

Pamplona, a 25 de marzo de 2024

Iruñean, 2023ko martxoaren 25ean

DILIGENCIA / EGINBIDEA

La pongo yo, el Secretario del Pleno del Excmo. Ayuntamiento de Pamplona, para hacer constar que el presente documento ha permanecido expuesto al público en el Tablón de Edictos de este Ayuntamiento desde el día 8 de marzo de 2024 hasta el día 22 de marzo, ambos inclusive, para dar cumplimiento a lo dispuesto en la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, de Haciendas Locales de Navarra, sin que en dicho periodo se hayan producido reclamaciones.

Nik jartzen dut, Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurako idazkaria naizen honek, jasota uzteko agiri hau Udalaren ediktu-taulan jendaurrean egon dela ikusgai 2024ko martxoaren 8tik 22ra bitarte, bi egun horiek barne, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatutakoa betetze aldera, aldi horretan ezein erreklamaziorik aurkeztu ez delarik.

EL SECRETARIO / IDAZKARIA,